

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. PHOTO CARTE. KUTXATEKA.

PRESO POLITIKOEN AMNISTIA ESKATZEN, 1931N

1931ko martxoaren 29an, manifestazio jendetsu batek Donostiako erdiguneko kaleak bete zituen: preso politikoentzako amnistia eskatzen zuen jendeak. Hainbat komunikabideren eta antolatzaileen arabera, 10.000-12.000 pertsonak hartu zuten parte. Gipuzkoako hainbat herritako ordezkari errepublikanoek, hala nola Irun, Eibar, Bergara, Pasaia, Hernani, Arrasate eta Errenterikoek, bat egin zuten Langile Elkar-teen Federazioak antolatu zuen deialdiarekin. Manifestarien "Amnistia" oihuak "Internazionala" abesten zuten ahotsekin nahasten ziren. Irudian, manifestariak ikus daitezke Boulevardean, Okendo kalean kokatua zegoen Gobernu Zibilerako bidean, non Gobernadoreari amnistia eskatzeko manifestua entregatu zioten. Bertan, deitzaileek eskerrak eman zizkioten Donostiako herriari, «burdin hesien artean sufritzen dutenei eta askatasunaren kausa defendatzeagatik atzerriratuta bizi direnei» babesa emateagatik. Gainera, preso politiko guztiak askatzeko eta "atzerriratuak" itzultzeko eskatu zuten.